Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 5a, ostirala — 43 — Viernes, a 5 de marzo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Ondasun higiezinak lehen eta bigarren lizitazioan enkantean jartzeko iragarkia. Esped. zk.: 201227/405/0.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zergabilketako Zerbitzu buruak.

Jakinarazten du: Zergabilketako Zuzendariordetza Nagusian premiamenduzko administrazio prozedura irekita dago, zorrak ordaintzera behartuta egoteagatik. 2021/01/19(e)an, ondasunak besterentzeko erabaki hau hartu da:

«Aztertu dira (identifikazioa alde batera uzten da) irekitako premiamenduzko administrazio prozedurako jarduketak. Hori dela eta, ikusi da, prozedurako zorrak premiatuta eta jakinarazita baina ordaindu gabe egonik, diligentzia eman zela ondasun higiezinak edota eskubideak bahitzeko 2016/01/27(e)an. Diligentzia horren bidez, «A» letrako bahitura idaztoharra egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde Donostia 2ko Jabetzaren Erregistroan.

Hona hemen bahitu diren ondasun higiezinak:

— Lehen lotea.

Azalpena, kokapena eta edukiera: hiri-finka. Behe solairuko lokala, Etxe-Txuri baserriaren eranskinean, Lugaritz auzoan, Donostiako jurisdikzioa, Grupo Gurutze bezala ezagutua. Sei zenbakia duen eraikinaren eskuin aldean kokatua, atarien mugatik begiratuta. Berrogei metro karratuko gainazala du. Bere sarrera atarien atzeko aldetik. Mugak: iparra, hegoa eta mendebala, gainerako ñabardura; eta ekia, bitartekaria den sei zenbakia duen eraikina. Lursailaren desnibela medio, ipar eta mendebaleko mugak itsuak dira.

Erregistro erreferentzia: Liburukia: 1734; Liburua: 678; Orria: 11; Finka: 16849/S; Erregistroa: Donostia 2.

Balorazioa: 25.938,00 euro.

Lehentasunezko kargak: 0,00 €.

Enkantearen oinarria: 25.938,00 euro.

— Bigarren lotea.

Azalpena, kokapena eta edukiera: hiri finka –1-B zenbakia– Behe solairuko lokala, ezker-ezkerrean kokatua, sei zenbakia duen eraikinaren atzeko fatxadatik sartuta, zazpi eta zortzi etxeek integratua, Grupo Gurutzen, Lugarizko auzoan kokatua, Donostian, Etxe-Txuri baserriaren eranskinean. Ehun eta hamabi metro karratuko gainazala du. Mugak: ipar eta hegoan, lur propioa; ekian, behe solairu honen gainerakoa, ezker lokala deituko dena; eta mendebalean, Josus Larrañaga jaunaren lurra, non erdisotoko solairuan eraikin bat joango den. Parte hartzen duen eraikinaren erkide diren gastu eta elementuetan esleitzen zaion partehartzea ehuneko lau oso eta laurogeita zazpi zentimokoa da.

Erregistro erreferentzia: Liburukia: 1734; Liburua: 678; Orria: 6; Finka: 12931/S; Erregistroa: Donostia 2.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Anuncio de subasta en primera y segunda licitación de bienes inmuebles. Expte. núm.: 201227/405/0.*

El Jefe del Servicio de Recaudación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Hace saber: Que en el procedimiento administrativo de apremio que se tramita en esta Subdirección General de Recaudación contra la persona obligada al pago, con fecha 19/01/2021, ha sido dictado el siguiente acuerdo de enajenación:

«Examinadas las actuaciones del procedimiento administrativo de apremio dirigido contra la persona obligada al pago (se omite la identificación), se observa que estando las deudas comprendidas en el mismo apremiadas y notificadas sin que se hubiesen solventado, se procedió a dictar diligencia de embargo de bienes inmuebles y/o derechos de fecha 27/01/2016, que causó en el Registro de la Propiedad de Donostia 2 la anotación de embargo letra «A» a favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los bienes inmuebles embargados responden al siguiente detalle:

— Lote primero.

Descripción, situación y cabida: urbana. Local de planta baja, sito en los pertenecidos del caserío Etxe-Txuri, barrio de Lugaritz, jurisdicción de San Sebastián, punto conocido por Grupo Gurutze. Está situado a la derecha del bloque número seis, según se mira al mismo por el lindero de los portales. Tiene una superficie de cuarenta metros cuadrados. Su acceso por la parte posterior de los portales. Linda: norte, sur y oeste, resto matiz; y este, bloque número seis con el que es medianero. Por el desnivel del terreno, sus linderos norte y oeste son ciegos.

Referencia registral: Tomo: 1734, Libro: 678, Folio: 11, Finca: 16849/S, Registro: Donostia 2.

Valoración: 25.938,00 euros.

Cargas preferentes: 0,00 €.

Tipo de subasta: 25.938,00 euros.

— Lote segundo.

Descripción, situación y cabida: urbana –Numero uno-B– Local de la planta baja, situado a la izquierda-izquierda, según se entra por la fachada posterior del bloque número seis, integrado por las casas siete y ocho, del Grupo Gurutze, sito en el barrio de Lugariz, de ésta Ciudad de San Sebastián, en los pertenecidos del caserío Etxe-Txuri. Ocupa una superficie de ciento doce metros cuadrados. Linda: norte y sur, terreno propio; este, resto de ésta planta baja que se denominará local izquierda; y oeste, terreno de Don Josús Larrañaga, en el que va una edificación en planta de semisótano. Se le asigna una participación en los elementos y gastos comunes del bloque de que forma parte de cuatro enteros ochenta y siete céntimos por ciento.

Referencia registral: Tomo: 1734, Libro: 678, Folio: 6, Finca: 12931/S, Registro: Donostia 2.

EK\CV GAO-I-2021-01423

Balorazioa: 72.626,40 euro.

Lehentasunezko kargak: 0,00 €.

Enkantearen oinarria: 72.626,40 euro.

Honen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onartutakoa, bere 104. artikuluan jasotakoari jarraituz, agintzen dut ondasun bahituak enkante ireki bidez besterentzea. Izan ere, bahitura edo bahiturak ekarri dituen zorra irmoa da, eta, beraz, hari dagokionez ez dago ebatzi gabeko errekurtso edo erreklamaziorik.

Enkantea 2021/03/24(e)an egingo da 10:30etan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamentuan, Miramon Pasealekua, 166 Donostian, 3 eta 4. aretoetan. Lizitazio horretarako enkante oinarria lehenago adierazitakoa izango da, hau da, lehen lizitaziokoa; zilegi da lote bakoitzerako gutxienez enkante oinarriaren ehuneko laurogei osatzen duten eskaintzak egitea.

Lehen lizitazioa egin ondoren loteren bat esleitu gabe geratzen bada eta zorra lotearen ondasunen kargura exijitu badaiteke, enkantearen bigarren lizitazioa egingo da, 2021/03/26(e)an 10:30etan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamentuan, Miramon Pasealekua, 166 Donostian, 3 eta 4. aretoetan. Lizitazio horretan zilegi izango da lote bakoitzerako gutxienez enkante oinarriaren ehuneko berrogeita hamar osatzen duten eskaintzak egitea.

Bigarren lizitazioa egin ondoren loteren bat esleitu gabe eta zor exijigarria lotearen ondasunen kargura geratzen bada, ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitzeko tramiteak hasiko dira, hain zuzen lehenago aipatutako Zergabilketako Erregelamenduak 114.etik 118.era bitarteko artikuluetan araututa daudenak.

Jakinaraz bekio besterentzeko erabaki hau ordaintzera behartuari, beraren ezkontideari edo izatezko bikoteari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubidearen ondoren dena delako erregistro publikoan inskribatutako eskubideen titular diren eta premiamenduzko espediente administratiboan jasotako karga ziurtapenean agertzen diren horiei –hartzekodun hipotekarioak eta pignoratizioak, gordailuzaina, Administrazioaz bestekoa bada eta, halakorik badago, enkantean jartzekoak diren ondasunen jabekideak eta haiek dauzkaten hirugarrengoak barne, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onartutakoa, bere 104.2 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Behin jakinarazpenak eginda, enkante iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara, Zergabilketako Erregelamendu horrek 104.5 artikuluan jasotako baldintzak betez.»

Lizitatzaileei hau jakinarazten zaie, ondasunak besterentzeko aurreko erabakian jasotakoaz gain:

*1. Lizitatzaileak.*

Zuzenbidearen arabera jarduteko ahalmena duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek hartu ahal izango dute parte derrigorrez besterentzeko enkantean, betiere beren eskaintzarekin konpromisoa hartzeko inolako lege eragozpenik ez badute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak inolako gordailu edo fidantzarik eratu gabe hartu ahal izango du parte ondasun eta eskubideen enkantean, edozein lizitatzaileren baldintza berdinetan.

Ondasunak esleitu aurreko edozein momentutan eten daiteke besterentze prozesua, zorrak eta prozeduraren kostuak ordainduz gero.

Erregistro publikoetan inskribatu daitezkeen ondasunak direnean, lizitatzaileek ez dute eskubiderik izango espedientean aurkeztutako jabetza tituluak baizik exijitzeko.

Valoración: 72.626,40 euros.

Cargas preferentes: 0,00 €.

Tipo de subasta: 72.626,40 euros.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 104 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, ordeno la enajenación de los bienes embargados mediante subasta pública, toda vez que la deuda que ha motivado el embargo o embargos es firme, no habiendo por tanto recurso o reclamación pendiente respecto a la misma.

En primera licitación la subasta tendrá lugar el 24/03/2021 a las 10:30 horas en el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Paseo de Miramón, n.º 166 de San Sebastian, salas 3 y 4, siendo el tipo de subasta para esta licitación el señalado anteriormente, admitiéndose posturas para cada lote que cubran al menos el ochenta por ciento del tipo de subasta.

Si tras esta primera licitación quedase algún lote sin adjudicar y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se procederá, a la celebración de la subasta en segunda licitación, el 26/03/2021 a las 10:30 horas, en el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Paseo de Miramón, n.º 166 de San Sebastían, salas 3 y 4, admitiéndose posturas para cada lote que cubran al menos el cincuenta por ciento del tipo de subasta.

Si quedase algún lote sin adjudicar tras esta segunda licitación y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se iniciarán los trámites de adjudicación de bienes a la Diputación Foral de Gipuzkoa en pago de deuda, regulados en los artículos 114 a 118 del precitado Reglamento de Recaudación.

Tal y como establece el artículo 104.2 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, notifíquese este acuerdo de enajenación a la persona obligada al pago, a su cónyuge o pareja de hecho, a los titulares de derechos inscritos en el correspondiente registro público con posterioridad al derecho de la Diputación Foral de Gipuzkoa que figuren en la certificación de cargas que conste en el expediente administrativo de apremio, incluyendo entre esos titulares posteriores a los acreedores hipotecarios y pignoraticios, al depositario, si es ajeno a la Administración, y en caso de existir, a los copropietarios y terceros poseedores de los bienes a subastar.

Practicadas las citadas notificaciones se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio de subasta con los requisitos establecidos en el artículo 104.5 del mencionado Reglamento de Recaudación.»

Se informa a los licitadores, además de lo transcrito en el acuerdo de enajenación que antecede, de lo siguiente:

*1. Licitadores.*

Podrán tomar parte en la enajenación forzosa todas las personas, físicas o jurídicas, que tengan capacidad de obrar con arreglo a derecho y no tengan impedimento o restricción legal para comprometerse con su oferta.

La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá concurrir a la subasta de bienes y derechos, sin necesidad de depósito ni fianza alguna, y en las mismas condiciones que cualquier licitador.

El proceso de enajenación se suspenderá en cualquier momento anterior a la adjudicación de los bienes si se hace el pago de las deudas y costas del procedimiento.

Cuando se trate de bienes inscribibles en registros públicos, los licitadores no tendrán derecho a exigir otros títulos de propiedad que los aportados en el expediente.

EK\CV GAO-I-2021-01423

Dena delako lizitazioa bukatuta, besterentze mahaiko buruak fidantzak itzuliko dizkie esleipendun suertatu ez diren lizitatzaileei, banku transferentziaren bidez.

Esleipendunaren gordailuak salmenta prezioaren kontura atxikiko dira, halako moduz non, ordainketa ez bada erregelamendu honetan ezarritako epean osatzen, fidantzaren zenbatekoa galduko baitute, obligazio hori ez betetzeak sorraraz ditzakeen kalte handiagoak ordaintzea eragotzi gabe.

Esleipendun ateratzen den lizitatzailea behartuta egongo da, esleipenaren ondorengo hilabeteko epean, gordailuaren eta esleipen prezioaren arteko diferentzia ordaintzera; hala egiten ez bada, esleipena eraginik gabe geratuko da. Ordainketa egiteko, larunbata ez da kontuan hartuko inola ere. Diferentzia hori Kutxabank 2095 0611 01 1061817176 zk.ko kontu korrontean ordaindu behar da.

Enkantearen oinarrian ez daude sartuta eskualdaketa kargatzen duten zergak. Esleipenaren gastu guztiak, bai fiskalak bai erregistroarenak, baita finkaren titularidade aldaketari atxikitako gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

*2. Eskaintzen aurkezpena eta enkantearen lehen lizitazioa.*

Lehen lizitazioan, eskaintzak zuzenean eta pertsonalki aurkeztu behar dira Donostiako Errotaburu Pasealekua, 2. zenbakian (0 solairuan, balio anitzeko aretoan), 8:30tik 14:00ak arte. Ezinbestekoa izango da hitzordua hartzea Zergabilketa Zerbitzuan 943.113.000 telefonoan.

Eskaintzak enkante iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik eta eskaintzak ireki aurreko azken lanegunera bitartean aurkeztu behar dira, biak barne.

Eskaintzak idatziz aurkeztu behar dira, eta dokumentazio hau jaso behar dute:

— Lizitatzailearen nortasun agiriaren kopia soila (jatorrizkoarekin behar bezala parekatua) eta, hala badagokio, bere gain hartutako ordezkaritza frogatzen duen eskritura publiko edo dokumentuarena.

— Kutxabank 2095 0611 01 1061817176 zenbakiko kontu korrontean sartutako fidantzaren frogagiriaren jatorrizko alea edo kopia soila, jatorrizkoarekin behar bezala erkatua. Lote bakoitzerako fidantzaren zenbatekoa lehen lizitazioko enkante oinarriaren ehuneko hamarra izango da.

Kontu korronte horretan sartutako fidantzaren balio datak enkantearen lehen lizitaziorako ezarritako egunarena edo aurreko batena izan behar du.

— Lizitatzaileak sinatutako idazkia, non lizitatzeko asmoa eta eskuratu nahi den lotea adierazten diren.

— Kartazal itxia, eskaintzaren zenbatekoa jasotzen duena; eskaintza horrek gutxienez lehen lizitazioko enkante oinarriaren % 80 estali behar du. Kartazalaren kanpoaldean, aukeratzen den loteari buruzko erreferentzia modu nahikoan adierazi behar da.

Dokumentazioaren aurkeztu izanaren frogagiria emango zaio aurkezleari, zehazki noiz eta zer ordutan aurkeztu den adierazita (espedientean jaso behar dira xehetasunak). Behin eskaintza aurkeztuta, hori ezin izango da erretiratu inongo kasutan.

Behin besterentze mahaia eratuta, lotekako ondasunen zerrenda eta enkantearen baldintzak irakurriko dira, iragarki honen arabera.

Jarraian, mahaiak lizitatzaileek lehen loterako aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du; behin hori onartuta, eskaintzaren zenbatekoa idatzita duten kartazalak irekiko dira, eta mahaiak

Finalizada la licitación de que se trate, se procederá por el Presidente o Presidenta de la Mesa de enajenación a la devolución de las fianzas a los licitadores no adjudicatarios, a través de transferencia bancaria.

Los depósitos de los adjudicatarios serán retenidos a cuenta del precio de venta, de modo que si en el plazo de que dispone para completar el pago, éste no se realiza, perderán el importe de la fianza, sin perjuicio de la obligación de resarcir a la Administración de los mayores perjuicios que origine el incumplimieto de tal obligación.

El licitador que resulte adjudicatario quedará obligado a efectuar dentro del plazo de un mes desde el acto de adjudicación el ingreso de la diferencia entre el depósito constituido y el precio de adjudicación, deviniendo en caso contrario ineficaz la adjudicación. A efectos del ingreso el sábado no computará en ningún caso. El ingreso de dicha diferencia deberá realizarse en la cuenta corriente 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank.

En el tipo de subasta no se incluyen los impuestos indirectos que gravan la transmisión. Todos los gastos fiscales y registrales derivados de la adjudicación, así como los gastos afectos al cambio de titularidad de la finca serán por cuenta del adjudicatario.

*2. Presentación de ofertas y desarrollo de la subasta en primera licitación.*

En la primera licitación las ofertas se dirigirán y entregarán directa y personalmente en el Paseo Errotaburu n.º 2 (planta 0, sala polivalente) de San Sebastian, en horario de 8:30 horas a 14:00 horas. Será imprescindible coger cita contactando con el Servicio de Recaudación en el número 943.113.000.

Las ofertas se presentarán entre el día de la publicación del anuncio de subasta en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y el último día hábil anterior al señalado para la apertura de ofertas, ambos inclusive.

Las ofertas que se formulen deberán hacerse por escrito y constarán de la siguiente documentación:

— Copia simple debidamente cotejada del Documento Nacional de Identidad del licitador y, en su caso, escritura pública o documento que justifique la representación que ostenta.

— Original o copia simple debidamente cotejada del documento justificativo de la fianza efectuado en la cuenta corriente número 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank. El importe de la fianza para cada lote será del diez por ciento de su tipo de subasta en primera licitación.

La fecha valor del ingreso del importe de la fianza en esa cuenta corriente deberá ser igual o anterior a la fecha señalada para la celebración de la primera licitación de la subasta.

— Escrito firmado por el licitador en el que se indica la intención de licitar y el lote al que se opta.

— Sobre cerrado que incluya escrita la cuantía que se ofrece, y que deberá cubrir al menos el ochenta por ciento del tipo de subasta en primera licitación. En el exterior del sobre deberá indicarse de manera suficiente la referencia del lote al que se opta.

De la documentación presentada se expedirá el oportuno recibo al presentador, con expresión del día y hora exacta de la entrega y de cuyos extremos quedará constancia en el expediente. Una vez entregada la oferta, ésta no podrá retirarse en caso alguno.

Una vez constituida la Mesa de enajenación, dará comienzo el acto con la lectura de la relación de bienes en lotes y de las condiciones por las que se ha de regir la subasta, según el presente anuncio.

A continuación, se examinará por la Mesa la documentación presentada por los licitadores para el primer lote; admitida la misma, se abrirán los sobres que contienen escrita la cuantía

EK\CV GAO-I-2021-01423

lote hori esleituko dio gutxienez minimo exijigarria estaltzen duen eskaintzarik onenari. Lote berari buruz bi eskaintza berdin badaude, denboran lehendabizi jaso zen eskaintzari esleituko zaio, espedientean eta aurkeztu izanaren frogagirietan jasotakoaren arabera.

Etenik gabe eta jarraian, modu berean jokatuko da gainerako loteei dagokienez.

Egintza amaitutzat emango da ondasun esleituen zenbatekoaz zor exijigarri osoa estali ahala.

Lehen lizitazioko enkantea amaituta, akta egingo da, eta horren kopia emango zaie hala eskatzen duten lizitatzaileei.

Lehen lizitazioa egin ondoren esleitu gabeko loteren bat eta zor exijigarria geratuz gero lote horren ondasunen kargura, bigarren lizitazioa egingo da besterentzeko erabakian jarritako baldintzetan, eta lehen eta bigarren lizitazioko enkanteei buruzko iragarki bateratua argitaratuko da.

*3. Eskaintzen aurkezpena eta enkantearen bigarren lizitazioa.*

Bigarren lizitazioan, gutxienez enkante oinarriaren ehuneko berrogeita hamar estaltzen duten eskaintzak onartuko dira lote bakoitzerako.

Bigarren lizitazioan eskaintzak egin ahal izateko, lizitatzaileak besterentze mahaiaren aurrean agertu behar dira hura egiteko jarritako egun eta orduan, bere nortasuna egiaztatzeko dagokion dokumentuarekin eta pertsonalki aurkeztu behar dituzte Kutxabankeko 2095 0611 01 1061817176 zk.ko kontu korrontean fidantza ordaindu izanaren frogagiriak. Lote bakoitzeko fidantzaren zenbatekoa lote horretarako aurreikusitako enkante oinarriaren ehuneko hamarra izango da.

Kontu korronte horretan sartutako fidantzaren balio datak enkantearen bigarren lizitaziorako ezarritako egunarena edo aurreko batena izan behar du.

Lote jakin baterako gordailututako fidantzak eratutzat joko dira, balio osoz, ondoz ondoko loteen lizitazioan parte hartu ahal izateko, baldin eta, aurretik adjudikatu den lote bati aplikatuta agortu gabe egonik, haien zenbatekoak lizitatzen den loterako eskatutako gutxienekoa estaltzen badu.

Era berean, hirugarrengo baten ordezkaritzan jardunez gero, ordezkaritza hori akreditatu behar diote mahaiari aurretik eta modu fedemailean.

Behin lizitatzaileak eta gordailuak identifikatu eta onartuta, egintza irekitzat hartuko da, eta hitzez egiten diren segidako enkante-gehikadak onartzen joango dira. Azkenean agertzen den eskaintzarik onenari esleituko zaio lotea. Zentzu horretan, enkante-gehikada amaitutzat emango da eskaintzarik handiena hirugarren aldiz errepikatzera iritsi eta hori gainditzen duenik ez dagoenean. Orduan, eskaintzailerik onenari esleituko zaio lotea.

Bigarren lizitazioko enkantea amaituta, akta egingo da, eta horren kopia emango zaie hala eskatzen duten lizitatzaileei.

Bigarren lizitazioa egin ondoren loteren bat esleitu gabe eta zor exijigarria haren ondasunen kargura geratzen bada, ondasunak zorraren ordain gisa Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitzeko tramiteak hasiko dira.

Donostia, 2021eko martxoaren 2a.—Juan Carlos Gónzalez Lombo, Zergabilketa Zerbitzuko burua. (1423)

que se ofrece y la Mesa adjudicará dicho lote a la mejor oferta que al menos cubra el importe mínimo exigible. En caso de existir dos ofertas idénticas sobre el mismo lote, se adjudicará a aquella que primero se recibió en el tiempo, según lo que resulte del expediente y de los recibos que a tal efecto se expidieron.

Sin interrupción y de forma sucesiva se procederá de igual manera respecto de los demás lotes existentes.

El acto se dará por terminado tan pronto como se cubra la totalidad de la deuda exigible con el importe de los bienes adjudicados.

Finalizada la subasta en primera licitación, se levantará la correspondiente acta, de la que se entregará copia a los licitadores que así lo soliciten.

Si tras la primera licitación quedase algún lote sin adjudicar y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se procederá a una segunda licitación en las condiciones expuestas en el acuerdo de enajenación y anuncio conjunto de subasta en primera y segunda licitación.

*3. Presentación de ofertas y desarrollo de la subasta en segunda licitación.*

En segunda licitación se admitirán para cada lote posturas que cubran al menos el cincuenta por ciento del tipo de subasta.

Para poder pujar en esta segunda licitación, los licitadores deberán presentarse el día y a la hora fijada para su celebración ante la Mesa de enajenación, identificarse con el documento acreditativo de su personalidad que corresponda y entregar personalmente los resguardos justificativos de haber ingresado en la cuenta corriente número 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank el importe de la fianza, que será para cada lote del diez por ciento del tipo de subasta previsto para ese lote.

La fecha valor del ingreso del importe de la fianza en esa cuenta corriente deberá ser igual o anterior a la fecha señalada para la celebración de la segunda licitación de la subasta.

Se considerarán válidamente constituidas para poder tomar parte en la licitación de los sucesivos lotes aquellas fianzas depositadas para un determinado lote que no hayan sido agotadas por aplicación a un lote previamente adjudicado, siempre que su importe cubra el mínimo exigido para el lote para el que se quiera pujar.

Asimismo, si actuasen en representación de un tercero, deberán acreditar previa y fehacientemente ante la Mesa la representación que dijesen ostentar.

Identificados y admitidos los licitadores y los depósitos, se declarará abierto el acto y se irán admitiendo las sucesivas pujas que de viva voz se vayan haciendo, adjudicándose el lote a la mejor oferta que finalmente se manifieste. En tal sentido, la puja se dará por terminada cuando, repetida hasta por tercera vez la más alta, no haya quien la supere, adjudicándose el lote al mejor postor.

Una vez finalizada la subasta en segunda licitación, se levantará la correspondiente acta, de la que se entregará copia a los licitadores que así lo soliciten.

Si quedase algún lote por adjudicar tras esta segunda licitación y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen se iniciarán los trámites de adjudicación de bienes a la Diputación Foral de Gipuzkoa en pago de deuda.

San Sebastián, a 2 de marzo de 2021.—El jefe del Servicio de Recaudación, Juan Carlos Gónzalez Lombo. (1423)

EK\CV GAO-I-2021-01423